



ZUIN

Laudioko udalak erraztuko du hiruhilero ordaintzea zerga finko garrantzitsuenak

Udaletxeak bultzatu du martxan ipintzea hiruhilero epeetan zatitutako ordaintzeko sistema.

Herriko Etxeak, gaur egun gizarte osoari eragiten dion krisi ekonomikoaren egoeraren aurrean eta Arabako Foru Aldundiak katastro balioaren igoerarekin sortu duen egoeraren aurrean, bere esku dituen baliabide eta bitarteko guztiak erabilita, gure herriko bizilagunei udal zerga eta tributu ezberdinak ordaintzea errazteko ahal denik eta gehien, martxan ipini du **epeka zatikatuta ordaintzeko plana**.

Funtsean, ordaintzeko sistema hori bada urtean zehar eta aldiro zergapeko herritarrek dituen konpromisoak batu, metatu eta horien ordainketa urteko lau hiruhilero epeetan zatikatuta.

Plan hori borondatezkoa da, eta nahiago duenak jarraitzea zergak eta tasak ordaintzen orain arte egiten zuten legez, jarraitu ahal izango du.

Hiruhileroko ordainketa zatikatuta erabiltzeak ez du interesik ez eta penalizatorik ordaintzea erakarriko urte osoko ordainketarekiko. Beraz, udalaren diru-sarrerari begira edo herritarren gastuei begira, gaur egun diren berdina izango dira.

Herriko etxearen iritzi mesedegarria egingo zaie formula auzokideei euren diru-baliabideak hobeto erabiltzeko formula da, eta urtean zehar gastuak hobeto banatzeko, zerga eta tasa zehatz batzuen ordaintzearen ondorioz, hilabete batzuk beste batzuk baino zailagoak izatea ahal den neurrian sahistu eta alboratzeko.

Urteko aldiroko kobrantza eta notifikazio kolektiboko

zergak sartu ahal direnak **ordaintze pertsonalizatuko zerga plana** izenekoan, borondatezko aldiari lau zatiko epeetan ordaintzearen ondorioetarako, 2012 ekitaldirako hauek dira:

• **Ondasun higiezinaren gaineko zerga (hiri- eta landa-lurra)**

• **Ekonomi jardueren gaineko zerga**

Plan horretan sartu ahal izango dira ordaintzeko obligazioak eta zergadun direnak, betiere zehaztutako betebeharrak hauek betetzen badituzte:

1. Planaren onuradunak egunean egon behar dira eskaera egiteko unean Udala Ogasunarekiko zorren ordaintzean.

2. Behin Planean sartuta, plan hori aplikatuko zaio hala Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren nola, kasua bada eta ordaintzera obligatuta badago, Jarduera Ekonomikoen Zergaren ondoriozko onuradunaren zerga-zor multzo osoari.

3. Epekako kuota 50 euro edo gehiagoko zenbatekoak izan beharko dira, eta Planaren objektu diren epekako kopuruen diru-zenbatekoak buruz ez da berandutza-korriturik eskatuko.

4. 2012 urtean izan ezik, kobrantzen maiztasuna hiruhilerokoa izango da, hilabete hauetan: Martxoa-Ekaina- Iraila eta Abendua, dagokion hileko azken 15 egunetan amaituko da epea. 2012 urtean, salbuespeneko izaeraz, hiru ordaintzeko epe egongo dira: ekaina, iraila eta abendua.

5. **Zerga plan pertsonalizatuan** izena emateko epea, 2012 urtean, 2012ko martxoaren 31ra artekoa izango da.

2013 urtetik aurrera, **ordaintzeko zerga plan pertsonalizatuan** izena emateko epea, aurreko urteko urriaren 1etik abenduaren 31 bitartekoa izango da. (Adibidez, 2013 urterako, eskatu beharko da 2012ko urriaren 1etik abenduaren 31 bitartean, eta horrela urtez urte). Hala ere, behin PLANean sartuta, plana automatikoki aplikatuko da hurrengo urteetan eskaera berri barik, salbu eta interesatuak betearazteko aldiari ordaindu gabeko zor pendienteak baditu. Edozein momentutan eska daiteke Planetik irtetea, baina horren aplikazioa burutu eta gauzatuko da hurrengo ekitaldian.

Izena ematea formulatuko da Udaletxeak horretarako prestatutako inprimakia beteta. Bertan adieraziko da ordaintzera behartutakoaren nortasuna, planean sartutako zerga/k, hala nola ordainketak helbideratu beharko diren bankuko kontu bakarra. Eskatzaileak Zerga Planean sartutako erreiboetarako bat ordaintzen ari bada banku helbideratzearen bitartez, helbideratze hori baliogabetuta geratuko da eta planean egindako helbide berriak ordeztuko du helbideratzea.

Sartu beharreko kontzeptuak azaldu beharko dira planean altak eragina izango duen aurreko urteko dagokion zergako kobrantzako eroldan. Hala ere, berri eman beharko zaio berehala Udaletxeari zergako zerga-oinarrian gertatutako edozein aldaketa (higiezinaren salmenta, jarduera bertan behera utzi, e.a.)

6. Zatikaturako lehen hiru epeetako bakoitzaren zenbatekoa izango da hauxe: aurreko urtean ordaindutako kuoten guztirako zenbatekoa lau zatitan banatzearen ondoriozko zifra. Laugarren eta azken epearen zenbatekoa izango da: planean sartutako erreiboen guztirako kopurua eta ordaindutako lehen hiru epeetako kopuruaren arteko ondoriozko diferentzia.

Salbuespenez, eta 2012 urterako, zatitutako lehen bi epeen kopurua izango da aurreko ekitaldian ordaindutako kuoten guztirako zenbatekoa hiru zatitan banatzearen ondoriozko zifra; hirugarren eta azken epearen zenbateko kopurua izango da Planean sartutako erreiboen guztirako kopurua eta lehen bi epeetan ordaindutako guztirako kopuruaren arteko ondoriozko diferentzia.

7. Eskatzaileak edozein epe ordaindu gabe uzten badu, ez zaizkio hurrengo epeak kontuan kargatuko eta bere Zerga Plana itxiztat joko da, zor osoa ordaindu behar izanik ordaintzeko bide normaletik, borondatezko aldiari edo derrigorrekoan, betearaztekoan, dagokionaren arabera, jada egindako ordainketak konturako diru-sarrera legez geratuko direlarik dagokion Padri Erroldetan.

8. **Planean sartzeak** ez du suposatzen praktikatu diren kitapen aurka egikaritzeko epeen inolako adaketarik, ezta zerga-kudeatzearen beste inolako aspekturera ere, bere araubide espezifikoen araukin jarraituko baitu.

fuera lotsa guztiak!!



www.fueralotsaguztiak.com

Laudio Ikastolak Agate Deunako kalejira tradizionala egingo du hilaren 4an

Baisalak Antzokian hilaren 10ean egingo den gau latinora gonbidatzen dizuete

Laudioko areto dantzen elkarteak gau latina antolatuko du otsailaren 10ean, gaueko 22:30etatik aurrera Antzokian. Ohi bezala ez dira animazio eta musikarik faltako, beti ere dantza modalitate, koreografia eta ruedak dantza-tezko asmoz. Bertan biltzen direnek zozketa baten parte hartzeko aukera izango dute.

Drumgorri aretoak metala omenduko du otsailaren 4an

Datozen ostiral eta larunbatetan Drumgorri aretoak ahalegin berria egingo du eskaintzen duen musika maila altua bere horretan mantentzearen eta horrexegatik metalaren lehen gaua antolatuko du. Egungo musika zuzeneko bizi biziaren eskaintzen saiatuko direnak hauek izango dira:

- **Otsailak 3 ostirala** 23:00 sarrera 5€ - KORUMBA + THE HOWL
- **Otsailak 4 larunbata** 23:00 doan "Metal Gaua": AXUT+PERSEVERANCE+ADAMANTIVM



- **Otsailak 10 ostirala** 23:00 doan - NICE FAMILY TRIP
- **Otsailak 11 larunbata** 23:00 doan LOREBELTZ



- **Otsailak 17 ostirala** 23:00 sarrera 5€ - MISTER MACHIN + SEVEN BLACK ROSES

Herriaren-en Neguko XVI txapelketako finalak

Datorren ostiralean, otsailak 10, arratsaldeko 19:30etatik aurrera eta Aretako frontoian Herriaren-en Neguko hamaseigarren txapelketako finalak jokatu dira.

Urriari hasi zen lehiaketa hau, Pilotaren euskal Federakundeak antolatzen duen eskuz banakako eliteko txapelketarekin batera antolatzen da. Hain da garrantzitsua, ezen ETBko kamerek 19 urte baino gutxiagokoen eta senior kategorietako partidak eskainiko dituela.

Aipatutako partidez gain, alebin eta haurren mailako partidak ere jokatu dira.

Sarrereren prezioak ohikoak izango dira: bazkideek 2 euro eta gainontzekoek 3, eta 14 urte baino gutxiagokoez ez dute ezer ordaindu behar.

Urtero bezala, 25 pilota goxua zozketatu dira bertaraten diren eta kirol polit hau praktikatuko nahi duten txikien artean.

Ohiturari jarraituz, otsailaren 4an Audio Ikastolak guraso eta ikasle talde bat herriko kaleetatik kantari ibiliko da arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Kalejira Ba-

salarrina Elkartetik abiatuko da, azoka plazatik, eta bukaeran askaria izango da bertan partaide guztientzat. Otsailaren, 2an, ostegunean, familientzako entsegu

antolatuko da Basalarrina Elkar-teen arratsaldeko 18:00etan. So-plaren hitzak eta doinua ikastola-ko web gunean eskura daitezke: www.laudioikastola.net

XVI. Audio Ikastola Krosa hilaren 12an

XVI. Audio Ikastola Krosa ospatuko da otsailaren 12 Lamuza Parkean. Arabako Eskolarte Kros-txapelketa lehiatuko da bertan 1998 urtetik 2005ra bitartean luzatzen diren adin-kategoriatan;

2004tik aurrera jaiotakoentzako agerraldi lasterketa izango da ere. Partaidetza handia espero dute beraz antolatzaileek. Lehen proba 10:30ean hasiko da eta ordu erdi lehenago izena ema-

teko epea itxiko dute antolatzai-leek. Euskara kirola esparruan harreman hizkuntza izan dadila bultzatu nahi dute ekimen honekin Audio Ikastolako atletismo taldeko kideek.

Matrikula epea zabalik Audio Ikastolan

2012/13 ikasturterako matrikula zabalduko du Ikastolak 0 urtetik 16 urte bitarteko ikasleei zuzendu-

tako ikasmailetan. Epea urtarri-laren 30etik otsailaren 10a arte izan-go da zabalik. Informazio gehiago

94 672 67 37 telefonoan, Ikasto-lako idazkaritzan eta www.laudioikastola.net web gunean.

Zabalik jada IES Audio BHko matrikulazio epea

IES Audio BHk (lehen Aiala Kan-tzelaria zenak) datorren ikastaro-an -2012-2013- DBH 1.rako matrikula zabalduko du urtarri-laren 30etik otsailaren 10era arte. B eta

D ereduetan dago matrikula za-balik. Datorren kurtsorako tekno-logia berriak instalatuta egongo dira DBH ikasgela guztietan, eta ingelesa indartzeko talde bat ere

antolatuko da. Informazio gehi-ago nahi izanez gero deitu telefono honetara 946720086, edo sartu honako helbide elektroniko hone-tan: www.laudioinstitutua.net

Hurrengo egunetarako Audio Top Zinemaren proiektioetan irribarrea nagusi

Hugh Grantek protagonizatutako haur baten eta umeak atsegin ez dituen heldu baten komerikak kontatzen dituen zine arrakasta handienetako baten berrikuspena eta ezkontza ero batek eragiten

duen kaosa kontatzen duen peli-kula izango dira hurrengo egunet-an Lan Heziketako Udal Ikaste-txera hurbiltzen diren irribarreak ateratzearen arduradunak. Zalan-tzarik gabe, aukera hurbil eta di-

bertigarria hurrengo asteburuez gozatzeko:
-Otsailak 4 "Un niño grande" 17:30, 20:00. LHUIan. € 1. AG
-Otsailak 11 "Una boda de muerte" 17:30, 20:00. LHUIan. 2 € AG

Zabalik jada Helduentzako ikastetxe publikoko 2011-2012 ikasturterako bigarren matrikulazio epea

Laudioko EPA ikastetxean (helduentzako ikastetxe publikoa) 2011/12 ikasturterako bigarren matrikula zabalik dago. Ikastetxe hau publikoa da eta bertan ikastea

doakoa. Ikasturte honen eskaini-Oinarrizko informatika, argazkilaritza digitala, irakurketa eta uler-mena, atzeritarrentzako gaztela-nia, ingelesa, oroimena lantzeko

tailerra, euskara, artea, DBH-ko ikasketen titulua. Informazioa eta matrikula: Lau-dioko EPA ikastetxean, Latorro 8, tfnoa: 946721734

Bazkalekuak eskatzeko epea zabalik

2012ko bazkalekuak erabiltzeko epea zabalik. Izen emateak otsailaren 6tik martxoaren 14ra bitartean egin behar dira, Arza industrialdean, Hiru Gurutzetan, Arza eraikineko, bigarren solairuan kokatutako Laudioko Garapen

agentiako, Nekazal Garapenera-ko bulegoetan, beti ere astelehen eta asteazkenetan goizeko 9:00etatik 12:00etara. Ustiakun-tza agiriaren kopia, azken osasun kalifikazioa eta zaldien kasuan, zaldien identifikazioa agiriaren ko-

pia aurkeztu behar dira (DIE delakoa). Batzordeak adostutako bazkale-kuen neguko atseden epea urtarri-laren 1ean hasi era apirilaren 1ean, biak barne, da.

GAZTE INFORMAZIO GUNEA "LAMUZA"

LAMUZA 13 KALEA

infogazte@laudiokoudala.net

ORDUTEGIA: Astelehen, asteazken eta ostiraletan 16:30etatik 19:30etara

Agiri desberdinak bertan egiteko aukera jarraia



D BITAMINA. Aberastu bere heziketa. 2012/13 ikasturterako aurrematrikulazioak

Laudioko merkealdi eta aukeren VIII feria antolatuko du Apillek

Bertan parte hartu nahi duten dendek, inskripzioaren inguruko zehaztasun guztiak biltzen dituen oinarriak bildu ditzakete Apillen bulegoetan (Zumalakarregi etorbidea 33, 1. esk). Izena emateko epea otsailaren 1^a arte zabalik. Harremanetarako zenbakiak: 946722801 eta 944030578.

Apdemak ingelesezko ikastaro trinkoa dakar

Adimen urritasuna duten pertsonen interes eta eskubideen alde lan egiten duen Apdema elkarteak ingelesari buruzko ikastaro trinkoa antolatuko du otsaila eta apirila bitartean udalerriko Kultura Etxea, eguaztenero, arratsaldeko sei etatik aurrera.

Izen emateak Apdemako bulegoetan... Laudion, Arndantzazar kaleko seigarrenean, asteartero 17:30etatik 20:00etara edo Amurion Landaburu kaleko 15.ean, martitzenero 17:30etatik 20:00etara. Baita email bidez, centrosocio-alava@apdema.org beti ere urtarrilaren 23^a baino lehen edo honako telefono hauetan. Ordaindu beharreko prezioa, bazkideek 21,50 euro eta gainontzekoek 25.

Etxeko lanak egiten lan egin nahi dutenentzako gizarteratze ikastaroa

Otsaila eta martxo bitartean eta Caritasen lan poltsan izena eman duten pertsonen lan munduan sartzeko aukerak hobe ditzaten, Caritasen etxeko lanei buruzko ikastaroa antolatuko du eta bertan hiru modulu hauek jorratuko dira: sukaldaritza eta elikadura, arropa garbitzea eta lisatzea eta etxea eta bere garbiketa. Informazio gehiago Alberto Acero kaleko 2. zenbakiko lehenengo solairuan kokatutako bulegoetan. Horrez gain gogoan izan behar duten pertsona guztiak etxe esparruan enplegu bitartekaritza zerbitzua eskura dezaketela.

Caritasek behartsuenentzako arropak ematen segi dezatela eskatzen die herritarrei

Laudioko parrokiako Caritasek honako hau gogorarazi nahi die herritar guztiari: Elorza Maisuaren 5. zenbakiko beheko solairuan kokatutako jantzitegiak arropa biltzen segitzen duela, batez ere urteko sasoi hotz honetan, behartsuenek behintzat arropa egokiak jantzi ditzaten. Besteak beste hauen premia da: gizonentzako neguko arropa, 3 eta 12 urte bitarteko haurrentzako jantziak, haurrentzako gurditxoak edo negurako mantak. Arropa emateak astelehen, martitzen eta barikutan 17:00etatik 19:00etara egin behar dira edo bestela Quintana gozotegiaren aurrean kokatutako edukiontzian eguneko 24 ordutan.



Otsailaren hasieran (datak zehazteke daude), 2012/13 ikasturteko aurrematrikulazioak aldia zabalduko da. Horregatik Udalak, bere Euskara Arloaren bitartez, kanpaina bat abiatu du, 2009 eta 2010 urteetan jaiotako Laudioako 322 umei zuzendua. Izena: "D bitamina: aberastu bere heziketa!" Bere bitartez umeek hazi ahala neurtzeko gailu bat eta D hezkuntza-eredua (euskara hutsezko irakaskuntza) aukeratzearen aldekoak batzen dituen eskuorri informatibo bat jasoko dituzte. D eredua da, aditu guztien esanetan, euskara / gaztelera elebi-



tasunera iristeko hezkuntza-eredu egokiena. Baina adituen iritzietatik at, badirudi errealitatea bera, bide horretatik doala, herritarrek D erduaren alde egiten duten eskerra soziala geroz eta nabariagoa delako. Izatez, aurreko 2011/12 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko gurasoen gehiengoak (% 70) D erduan matrikulatu zituen bere haurrak. Proporzio bertsuak ditugu gure herrian: iaz estreinako matrikulatu ziren Laudioako bi urteko umeen artean, 10etik 7k D erduan eman zuten izena.

Herri-argiteriaren energia auditoria

Otsailean zehar Laudioako Udalen Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) batera herriko kaleetako argien inguruko energia auditoria egingo du. 2011 urtean aurrera eraman zen lehenengo fase batean, udaleko kontsumo energetikoa murrizteko eta udal eraikuntzen eraginkortasun energetikoa hobetzeko helburuarekin, bai herri-argiteriaren eta bai udal

eraikuntzen auditoria energetikoa egin zen. Bigarren fase honetan kaleko argiteriaren azterketa sakonagoa egingo da. Era horretan, argiteriaren egoera zein den, sortzen duen argi kutsadura zenbatekoa den eta zein energia kontsumo duen jakin ahal izango dugu. Horretarako, gaian aditua den teknikari talde batek ekipo eta lan-

paren funtzionamenduaren kontrola egingo du. Analisia egin ondoren, herri-argiteriak duen kontsumoan eta eraginkortasun energetikoan hobekuntzak lortzea ahalbidetuko duten neurriak ezarriko dira. Era berean, neurri hauei esker, dirua aurrezteaz gain, ingurumenaren alde lan egiten jarraituko dugu.

Lagun iezaguzu odol erreserbak mugara hel ez daitezkeen odola emanda otsailaren 2an

Osasun jarduerak geroz eta gehiago dira eta horregatik odol emateak ezinbestekoak dira. Egun, odol erreserbak bere azkenekotan daude eta batek baino gehiagok aipatzen duenez, urtean

EAEK 8.000 odol emale berri behar harko ditu. Horregatik eta paziente edo gaixo berri bat egon baino lehen, odol transfusiorako poltsa bat egon dadin, odola ematera bultzatu nahi

dizuegu: otsailaren 2an, 9:30etatik 13:30etara odol emateko ibilgailua Lamuza parkean egongo da, ahalik eta odol gehiago biltze aldera... Lagun iezaguzu bizitza ematen!

Erakusketa batek eta bi hitzaldik Afrika hurbildu eta banka etikoaren inguruko zalantzak argituko dizkigute

Laudioko Ipar Hegoak, Laudioako Udalaren, Elizbarrutiko Misioak, Medicus Mundi eta Umoya (Afrika beltzarekiko elkartasun komiteak eskaintza hirukoitza egingo digute: "Afrikatik hurbilago" akua-rela eta argazki erakusketa:

Juan Ramón Etxebarriaren eskutikoa. Urtarrilaren 30etik otsailaren 11ra Kultura Etxean honako ordutegian: Asteunetan 18:00etatik 20:00etara, zapatuetan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara eta igan-



detan 11:00etatik 14:00etara. **Banka etikoaren inguruko hitzaldia:** Otsailak 3, ostirala 20:00etan Udaletxeko balio anitzeko aretoan, Fiare proiektuaren eskutik. Sarrera libre eta doakoa. **Afrikari buruzko hitzaldia: Afrika hurbiltzen gaituzten testigantzak:** Otsailaren 10ean, barikua, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Kultura Etxean eta Juan Ramón Etxebarriaren eskutik. Sarrera libre eta doakoa.